

ANTONIO ARZÁC

ZERURÁ




(ERRIAL BANA)

DONOSTIAN

I. R. BAROJA-BEN SEMEEN MOLIZERIAN

1894

TV
600



ZERURÁ



H-39681

R-43501

ATV
21600.

ANTONIO ARZÁC

ZERURÁ



(ERRIAL BANA)

DONOSTIAN

I. R. BARDJA-REN SEMKEN MOLDIZKIRAN

1894

*Jabeduna da eta legeak
debekatzendu bestek mol-
dizkiratzia.*

Es propiedad.

ZERURA

Kea dirudiela
denbora dijua....
ta bizi da oraindik
Maricho gasua!

I

.
Baña... ni eziñ bizi
zu ikusi gabe,
nere buruaz ondo
egiñ ziñan jabe!
barrenean detana,
biyotz edo labe,
zutaz errukitzeko

ez det aski jene!
Joan nitzan, bada, berriz
baserri zarrera,
lengo kabira diran
enaren antzera;
ganbarako leyotik
itsaso aldera.....
begira zegon, eta
deitu niyonian
jachi zan beruela;
negon atarian,
r'aitonaren galdia
egĩñ ondorian,
—Pasa bedi barrena,
jauna—esan ziran,
abiyaturik orla
nerekiñ izketan:

II

—¡Aitona!... ill zan, jauna,
enkargaturikan
bedorri etortzen bazan
egunen batian,
guztiya esateko.

Lengo berri badaki,
jauna, ta geroztik...
nere aiton gašua
damuak arturik,
asi zan triste, triste,
gelditzen bertatik;
etzuen ezer jaten,
ta, eziñ egonik,
zér egiñ etzekiye
ni poztutziatik.
Nik beretzat ez nuen
far irri bat baizik.
Orla giñan..., eta beiñ
echeko ganbaran
beti bezela ari
nitzan ardatzian;
aiton gašua neukan
alkiyan, aurrian,
ta nijuan bezela
liñua iruten
Jaizkibelgo lañua
zijuan banatzen.....
Guadalupeko Ama
agerturik ontan,
aiton onari esan

niyon bat batetan:
betor, betor onera,
ara gure Ama,
¿zergatik dago triste
aitona laztana?...
¿nai al du nik gauza bat
orain esatia?...

—Zuk nai dezun guztia
illoba maitia!

—Bada... nik nainukena
ez da besterikan
onera ekartzia
Ondarrabitikan
emakume gaño bat!.....
alarguna, pobria,
Antonen ama ¡ai!.....
ura galdu zanian
itsas zabalian,
lurrian gelditua
bakartasunian....!
¡Zér zorionekoa
izango nitzaken
utziko balirake
echera ekartzen!
¡am'alabak bezela

biziko giñake
eta gure biyotzak
poztuko lirake!....

—Ta zer zion aitonak?

—¡Nola esan!... jauna,
alkitik etorri zan
alcha ta nigana,
eta bi besuakiñ
lepotik arturik
doi-doya esan ziran:
«Ber...ta...tik, ber...tatik:
datorrela lenbailen;
zor au pagaturik,
kontentu nua oraiñ
mundu onetatik!»
Eta bere malkuak
neriakiñ jorik
lurrera zijoazen
elkarganaturik!

—(¡Aitonaren malkuak
azkenetakuak,
non fruta šimur batek
dauzkan ur tantuak;

eta illobarenak
 aundiak, beruak,
 aspaldiyan zeuzkanak
 barrenen bilduak!)

III

¿Eta gero?—¡Ai! jauna...
 urrengo goizian
 nere Antōnen ama
 nik aldamenian
 ikusten nuenian.....
 eta arratsian
 guztiyok elkarrekin
 errosariyuan
 difuntuen gantikan
 erregututzian.....
 jez dakit zér sentitzen
 nuen biyotzian...!

. !

—¿Ta ama bizi al da?

—¡Ez gañua... bañan...

begiyak nik ichirik
 mundutikan joan zan!

.

—Etá zu ¿nola zera?

—Ni kontentu, jauna;

nerc anai zarrena

echian deguna

chit ona da neretzat,

denak maite naute,

aitortuko ezpanu

biyortzik eznuke;

kofñatari laguntzen

diyot alegiña,

illobachoak dute

ikasten Dotriña,

beren gelan daukaten

Ama Birjiñari

lore šortak eskeintzen

dizkate kantari,

t'ingurutikan datoz

neskachak onera

arratsaldetan josten

nik erakustera;

orla joanik egunak

egunen ondoren.....

beti esperanzetan.....!

ta beti maitetzen.....!—

IV

Isilldu zan Maricho;
t'irten nitzan andik
nere artian orla
pensatzen jarririk:

—*Beti esperanzetan...!*—

¿Al da gure biziya
esperanza baizik?
¿nola bizi liteke
iñor au galdurik?

Len joan, ta *orain* esan
orduko pasarik,
¿gelditzen zaigu ezer
gero bat besterik?.....

. ?

—*Ta beti maitetzen...!*—

¡Bai, Maricho, bai! zure
antzikan ez duten
izenbat neskacha gazte
gaurko egunian,
biyotza kolokan ta
aizia buruan,
zorionaren billa

dabiltzan munduan,
itzal bat arrapatzen
aurraren moduan....!
¡Gaſuak!.... ez dakite
maitetzea zer dan!

V

Laguntzat eramana
nuen eskopeta,
ta arrats artarako
jorik Goizueta,
biaramon goizian
erbi chakurrakiñ,
ibayaren ertzian
utzirik Aldunziñ,
emendik eskuyera
asi nitzan sartzen:
izandurik Añarben,
gero Arranbiden,
baso eta mendiyak
ikusten nituen,
ta begira... begira...
ez nitzan aspertzen!
jo zer edertasunak

gordetzen dituzten....!
Gizonak alchatuak
badira erriyak,
Jaungoikoak egiñak
baso ta mendiyak!
Ta nebillen zoratzten
ni aben artian,
pill-pill sentirik nere
cuskal biyotzian
Urdaburu atzeko
erreka beltzian,
basurde ta basaunzak
zuten biltokian
oraiñdik ol-echerik
egiñ etzanian,
lengo denboretako
gure lur librian.....
aritz tantai galantak
zutik zeudenian!
Udazkena zetorren,
ego aizia zan,
bero egiten zuen
mendi aldapetan,
eiz arrastorikan
ezerenik etzan,

kabiyak utsak zeuden
arbol adarretan,
eta osto igarra
erortzen zanian.....
jo zenbat chori kontu
zeraman tartian....!
ta choriyak zebiltzan
itzala nayian
bide bazterretako
elorri sasiyan,
olluak atariko
metaren onduan,
ardiyak erreketan,
chakurrak chokuan
ta beyak ukulluan,
isilltasunian;
etzan ezer entzuten
inguru ayetan:
bazirudien dena
zegoela lotan,
arratsian bezela
aditurik "klan-klan"
arriyaren kolpia
bakarrik errotan.....
ta tarteka... nonbaitik

doi-doi nabaitua
ikazkiñen aizkoren
ebaki chištua.....
arzayen chilibitu
soñuaz nastua.....
Gero, Pikoagatik
beste alderdira,
beiñ gora ta beiñ bera
emanikan jira,
illuntzerako nitzan
irten Ergobira,
Urumean datorren
bezela aingira
leun-leun sarturik
nere Donostira.

VI

Illa bete geyenaz
zan ontaz irago,
non Ategorrieta
baño ononzago
goiz batian amon bat
jartzen zait ta diyo:
—Barka beza; ¿bedorri

da On Antoniyo?

—Bat bai.—Banekiyeñ nik!

bada, natorkiyo
esatera Maricho
chit gaizki dagola,
laster Jaunari kontu
emango diyola,
ta nai badu bizirik
ikusi oraindik
abiya litekela
bidian bertatik.

—Esan, ta nijuala
zerbait galdetzera,
itzontzi bat sartu zan
gu geunden artera,
t'arrekiñ egon eta
jira nitzanian
inondikan amonik
etzan ageri an.
Zér egiñ ez nekiyeñ.....
batetik, mandatua
gnork ziran bigaltzen?
bestetik, ara joanik
zér egiñ nezaken?
agiyan traba eta

menturaz kaltia,
 guchi edo geyago
 azken ordu artan
 bear dan pake ura
 nasturik animan.
 Baña... ¡sufritzen zeuden!
 ta... ¿nola ziteken?
 ¿kasorik egiñ gabe
 gelditu niteken?
 ¡ni ez! ara joan nitzan:

.
 Ez nuen nai izandu
 sartu bere gelan,
 ta begiratzen niyon
 ate ondotikan.
 Gurutze bat estutzen
 zuen eskuetan.....
 ezpáñak idukirik
 beraren oñetan
 ¡garbi! non maripošak
 eguak loretan!
 ¡bai! eta nola ill zan...!
 itsasoa ikuster
 zuen oyetikan,
 t'ametsetan bezela

urruti batian.....
 begi zorrotz illtiyak
 an jarririk zeuzkan.....
 noski bere maitia
 billatu nairikan.....!
 t'aurreratzen zijuan
 bezela agonian.....
 andikan Guadalupen.....
 t'ondoren Zeruan.....
 —(Je...sús... Ma..ri..a.. An..ton..)—
 marmarizturikan.....

. !

Arkitu ziranian
 Jaunaren kolkuian.....
 jzér eztayak izango
 zituzten orduan.....

.

.

. !

VII

Joan da gure artetik
 Maricho gañua!.....
 gu laster, ala nola



arbolen ostua;
ta mundu au legoke
oso igartua,
pozik gabeko penak
betiko galdua,
ezpalitz alchatuko
Zerurañokua,
eder, choragarria,
gozo, lurrintsua.....
¡¡esperanzaren lore
amoriyozkual!





